

## Industriaren balio erantsiak %4,5eko hazkunde 2016an, eta enplegua %1,9 gehitu Euskal AEn

### Manufaktura industriaren salmenten %44,5 atzerrira

2016an Euskal AEko balio erantsi gordina faktoreen kostuan %4,5 gehitu zen; okupatuak 198.141, 2015.aren aldean %+1,9, Eustaten arabera. 2008tik enplegua gehitzen den bigarren urtea; 2015ean izan zen joera aldaketa.

Euskal industriaren produktibitatea 2016an, okupatuko balio erantsiaren terminoetan, 71.437 €, %2,6ko gehikuntza aurreko urtearen aldean.

Inbertsioa bigarren urtez jarraian gehitu, %8,3 2016an.

2016an negozio-zifra garbiak %2,4ko jaitsiera nominala; hornikuntza (%-4,4) eta kanpo zerbitzuetako gastuak (%-3,8) gehiago jaitsi direnez, apaldu egin da negozio-zifraren beherakada eta balio erantsiaren hazkuntza erraztu.

### 1. koadroa. Industriaren aldagai nagusiak. Euskal AE. Uneko prezioak (mila €)

|                                         | 2016       | 2015       | Δ %  |
|-----------------------------------------|------------|------------|------|
| Landunak NU                             | 198.141    | 194.458    | 1,9  |
| Negozio zifraren zenbatekoa guztira     | 53.574.121 | 54.890.865 | -2,4 |
| Hornimenduak                            | 32.366.085 | 33.792.479 | -4,2 |
| Kanpo-zerbitzuak                        | 7.188.308  | 7.470.075  | -3,8 |
| Lagileria-gastuak                       | 8.592.742  | 8.306.777  | 3,4  |
| Balio erantsi gordina faktore-kostuetan | 14.154.616 | 13.542.946 | 4,5  |
| Egindako inbertsioak                    | 1.994.468  | 1.840.799  | 8,3  |

#### Iturria: Eustat. Industriaren estatistika

Manufaktura-industria, 2016an: Industriako okupatuen %95,5; negozio-zifraren %85,8; balio erantsiaren %86,5. Okupazioa %1,9 gehitu, balio erantsia %4,4; negozio-zifra %0,5 jaitsi. Manufaktura industrian Garraio materialean enplegua %8,1 gehitu da; salmentak %21,9; balio erantsia %9,4; batez bestekoaren oso gainetik denak. Makineria eta ekipoen: okupatuak %3,1 gehitu; balio erantsia %3. Metalurgia eta metalezko produktuetan, %1,3 eta %5,9.

Negozio-zifraren jaitsiera handienak: Kokeriak eta petrolio fintzea (%-15,2); Metalurgia eta produktu metalikoak (%-4,1); Kautxu eta plastikoak (%-2,2). Azken horretan, balio erantsian %+0,2 eta langileak lehengoan. Kokeriak eta petrolio fintzea adarrean, balio erantsia %+11,8; langileak, %-2,7.


## 2. koadroa. Jarduera sekzioak. Euskal AE. Uneko prezioak. Mila €. 2016

|                                   | Langile okupatuak | Negozio zifra | Pertsonal gastuak | Balio erantsi gordina faktore-kostuetan |
|-----------------------------------|-------------------|---------------|-------------------|-----------------------------------------|
| Industria eta Energia             | 198.141           | 53.574.121    | 8.592.742         | 14.154.616                              |
| Erauzteko industriak              | 437               | 168.419       | 22.142            | 31.675                                  |
| Manufaktura industria             | 189.309           | 45.989.777    | 8.141.078         | 12.247.405                              |
| Energia elektrikoa, gasa, lurrina | 2.201             | 6.430.005     | 179.195           | 1.421.531                               |
| Ur hornidura, saneamendu jarduera | 6.194             | 985.920       | 250.327           | 454.005                                 |

Iturria: Eustat. Industriaren estatistika

2016an, atzerrirako salmentak, euskal manufaktura industriaren %44,5, ehuneko 0,6 puntu gehiago 2015ean baino eta 2008an -krisiaren hasieran- baino 11,5 gehiago. Salmenta osoen %28,7 Europar Batasunera; %15,8, Munduko gainerakora.

### 1. grafikoa. Manufaktura-industriaren salmenten norakoa. Euskal AE. Uneko prezioak. Mila € eta %. 2016




Iturria: Eustat. Industriaren estatistika

Estatuko gainerakorako salmentak ehuneko 0,1 puntu gehitu 2015ekoen aldean; 2008koen aldean ehuneko 7,6 puntu gutxiago; 2016an, salmenta guztien %29,1. Euskal AEn bertan salmenten %26,4; 2015ean baino 0,6 puntu gutxiago.

Garraio materialaren salmenten %77,2, atzerrira 2016an. Makineria eta ekipoaren salmenten %58,8, atzerrira 2016an. Material eta ekipo elektrikoaren salmenten %48,3 (ehuneko +2,7), atzerrira 2016an.

Industria eta energia barruko produktibitate handienak 2016an: Produktu farmazeutikoak, pertsonako 145.000 euro; Industria kimikoa, 94.000. Aparte laga dira Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (646.000) eta Kokeriak eta petrolio fintzea (450.000). Produktibitate txikienak: Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza (39.000); Altzariak eta beste manufakturak (43.000). Manufaktura industriaren batez bestekoa 64.695 euro (2015ean baino %2,5 gehiago; Industria eta energian, osorik, 71.437 (%2,6 gehiago).

## 2. grafikoa. Produktibitatea sektoreka. Euskal AE. Uneko prezioak. Mila €. 2016



Iturria: Eustat. Industriaren estatistika

Negoio zifra lurraldeetan: Araban %+5,5; Gipuzkoan %-3,4; Bizkaian %-5,6. Enplegu okupatua: Araban %+2,9, Bizkaian %+2,3, Gipuzkoan %+1. Balio Erantsia: Araban %3,7ko hazkundera; Bizkaian %4,9; Gipuzkoan %4,6.

### Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62